

**2008KO IRAILAREN 11N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamaika

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Malu Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Alfonso Segade Gonzalez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2008ko uztailaren 3ko akta onartzeko proposamena.

2008ko uztailaren 3ko aktaren berri eman ondoren bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK:

a.- **Salbatore, 26 Areako Arau Subsidiario-aldaketaren behin betiko onespena.**

Une honetan sartu da batzarraldira Alfonso Segade, PSE-EE/PSOeko zinegotzia.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea.

AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 2008ko uztailaren 24an, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin behineko onespena ematea, hasierako onespenearekiko aldaketarik gabe.

Bigarren. Erabaki honen berri, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen berri ematea eta dokumentu hau bidaltzea, txostena eman dezan.”

II.- 2008ko uztailaren 24ko datarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen erabaki-ziurtagiria jaso da, adieraziz ez dagoela inolako eragozpenik aipatutako espedientea onartzeko. Aldi berean Euskal Herriko Ur-agentziaren eta Ingurumen Sailburuordetzaren txostenak atxikitzen ditu.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziatuta ere bidaltzea paperean eta behin betiko onespena duen dokumentua informatikoki ere diligentziatuta bidaltzea.

Hirugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziatuta bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Lauugarren. Behin betiko onespeneren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunekin batera Gipuzkoako Foru Aldundian ere argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

b.- Indar, 7. Sektoreko Arau Subsidiario-aldaketaren behin-behineko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“**Gaia:** INDAR 7. sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena.

I.- 2008ko ekainaren 5ean egindako Plenoan hasierako onespena eman zitzaion, INDAR 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari eta jendaurrean jarri zen, 2008ko ekainaren 6an, 7an eta 13an, Berrian, Diario Vasco eta GAOean hilabeteko epean iragarkiak argitaratuz. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

II.- Esan beharra dago, ordea, Legeak esaten duenari jarraituz, Beasaingo udalerriekin muga egiten dituen udaldetara Aurrerakina bidali zela eta Olaberriko Udalak 2008ko maiatzaren 13ko idatziaren bitartez iradokizuna aurkeztu zuela.

III.- Idatzi honi buruz, arkitektoak 2008ko uztailearen 28ko datarekin ondorengo txostena eman du:

“Olaberriako Udalak bere desadostasuna agertu du, hedapenak “zalantzarik gabe sektore horretan sartze eta irteteen trafikoa areagotuko duela” uste izateagatik. Olaberriko bide batetik igaro beharreko trafikoa, arestian berritu eta galtzada zabaldu dioten bidea hain zuzen. “Bide hori trafiko gehiegi jasateko diseinatuta ez dagoela eta Beasaingo 7. sektorea hedatzea ekarriko duela” deritzo.

Arau Subsidiarioen aldaketa berraztertze eskatu du, 7. sektorerako sarbidea Beasaingo udalerritik egiteko.

Idazkian zera ondorioztatzen da, “trafikoak nahitaez Olaberriatik igaro behar duela erabakiz gero, ondorengo aldaketak beharrezkoak direla”:

- 1. Egungo bidea 7 metrotik 9 metrora zabaltzea.*
- 2. Igarobide egoki bat exekutatzeko, semaforoekin, eta hala balegokio, Ihurre kiroldegirako lurpeko igarobide batekin.*
- 3. Castillo Hotelaren bidegurutzean biribilgune berri bat exekutatzeko, N-1etik Olaberriko trafikoa guztia erregulatzeko.*

Horiek dira Udalak Gipuzkoako Bide Azpiegituretarako Departamentuari eskatu nahi dizkion aldaketak.

III.- TXOSTEN TEKNIKOAK.

Beasaingo 7. sektorea hedatzeak lurzoru gordina 17.663 m² handitzea, 8.169 ustiapen unitate eta 10.000 m²-ko sabaia eraikigarria eskatzen ditu.

Zifra horiek ibilgailuen gehikuntza ekarriko dute, baina egungo kopuruarekin alderatuta, gehikuntza hutsala izango da.

Gaur egungo 7. sektoreko (Indar) eraikigarritasuna eta Olaberrian bide bera erabiltzen duten industria esparruen eraikigarritasuna gehituta (15 “Irizar”, 16 “Opel”, 17 “Yurre”, 18 “Hogei”, 19 “Jaso”, 20 “Zubieta”, 22 “Hine”), 120.000 m² dira guztira; horrek guztizkoaren % 8ko hedapena eskatzen du.

Ondorioz, horrek sor dezakeen trafikoaren gehikuntzak ezin diezaioke jada existitzen den diseinuari kalterik eragin.

Olaberriko Udalaren asmoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuari aurrez aipatutako aldaketak eskatzea da. Aldaketa horiek ez dira beharrezkoak Indar hedatzeko. Herriari komeni zaizkion beste arrazoi batzuegatik egin nahi dira; arrazoi horiek aztertzea, ordea, ez dagokigu guri.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiak Beasaingo 7. sektoreko Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen aldeko txostena eman duela aipatu behar da.

IV.- ONDORIOA.

Aurrez aipatutako guztia dela eta, Olaberriako Udalak Beasaingo 7. sektoreko Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen gainean bidalitako idazkia erabat gaitzetsi behar dela uste dut.”

IV.- Espedientea, Bide Azpiegituretako Departamentura ere bidali zen beharrezkoa txostena emateko eskatuz eta 2008ko uztailaren 22ko sarrera duen idatziaren bitartez Departamentu honek adierazi du ez dagoela inolako eragozpenik onartzeko.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Olaberriko Udalak aurkeztutako iradokizunak ez onartzea, txosten teknikoaren arabera.

Bigarren. INDAR 7. sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Hirugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.

Laugarren. Autonomia Erkidegoko ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena ere eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Fernando Boada, PSE-EE/PSOeko zinegotziak ondorengo esan du: “Es un paso más para que la obra pueda legalizarse. Estamos de acuerdo con la ampliación, aunque no con el procedimiento, pero votaremos a favor de la propuesta.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- EGITASMO PARTZIALAK

a.- Iturralde Txiki, 8. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketarekiko behin betiko onespina.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 13ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion, 8. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari.

Espedientea jendaurrean jarri zen 2008ko ekainaren 14an, 18an eta 30ean, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz. Alegazioak aurkezteko hogei laneguneko epean ez da inolakorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 8. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Partziala, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Partzialaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

b.- Arizmendi, 1. Sektoreko Egitasmo Partzialaren behin betiko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 23ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena baldintzekin eman zitzaion, Arizmendi, 1. Sektoreko Egitasmo Partzialari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeituneguneko epean, 2008ko ekainaren 27an eta 28an eta uztailaren 7an, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Sektoreko jabeen banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, PILAR ARRATIBEL ARANBURU andreak alegazioa aurkeztu zuen.

Alegazio honi buruz, udal arkitektoak 2008ko irailaren 4an txostena eman du ondorengoa adieraziz:

“Beasaingo 1. Sektoreko (Arizmendi) Zatiko Planari aurkeztutako alegazio bakarrak R-5.14 lursaila zatitzeko beharra planteatzen du. Zatiko Planak bitan banatzen du lursaila, alegia, Arizmendi Baserriko etxebizitza bakoitzerako bana (etxebizitza bakoitza mugatzen du, bakoitzari dagozkion lursail libreekin batera).

Aurkeztutako alegazioa ikusita, lursailak beste modu batera mugatzeko proposamena egokia dela irizten diot, Arizmendi Baserriko bi etxebizitzak era independentean mugatzeko eta kuantifikatzeko.

Planean jada agertzen den eta Beasaingo Arau Subsidiarioetan kuantifikatuta dagoen egoera aitortzean eta ordenatzean datza.”

Egitasmo Partziala Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritzara bidali zen beharrezkoa den txostena eskatuz. Honen berri 2008ko uztailaren 22an izan dugu eta nahiz eta aldekoa izan, bertan adierazten da, Arizmendi baserrira doan bidea foru errepidearekin izango duen elkargunea, eraikuntza proiektuan aztertu beharko da eta hau Bide Azpiegituretako Departamentura bidaliko da txostena emateko.

2008ko irailaren 5ean, Egitasmo Partziala aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioa ebaztea, txosten teknikoaren arabera onartuz.

Bigarren. Arizmendi 1. Sektoreko Egitasmo Partzialari behin betiko onespena ematea,.

Hirugarren. Aipatutako Egitasmo Partziala, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Partzialaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

c.- Errekarte II, 2. Sektoreko Egitasmo Partzialaren behin betiko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 23ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion, baldintzekin Errekarte II, 2. Sektoreko Egitasmo Partzialari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epean, 2008ko ekainaren 26an eta 27an eta uztailaren 7an, Diario Vascon, Berrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Sektoreko jabeen banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Egitasmo Partziala Uraren Zuzendaritzara bidali zen hilabeteko epean txostena emateko eskatuz, baina txosten hau ez da eman.

2008ko irailaren 5ean, Egitasmo Partziala aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Errekarte II, 2. Sektoreko Egitasmo Partzialari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Partziala, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Partzialaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

d.- Aprobación definitiva del Plan Parcial del Sector 3, Ugartemendi.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 26ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena baldintzekin eman zitzaion, Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partzialari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeituneguneko epean, 2008ko ekainaren 28an eta uztailaren 2an eta 7an, Diario Vascon, Berrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Sektoreko jabeei banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, alegazio hauek aurkeztu dira:

- GOI-ETXE, S.A.
- LAZKAOko Udala.

Alegazio horiei buruz, udal arkitektoak 2008ko irailaren 4an txostena eman du ondorengoa adieraziz:

1 zenbakiko alegazioa

“31. Eremuko (Aguantza) EU-3.1.1 Egikaritza Unitatearen sustatzaile gisa aurkeztutako idatzian, H lursailaren 10. eraikinak duen eraikitze profilarekin desadostasuna adierazten da. Lursail horrek 31. Eremuko A-1 eta A-2 eraikinen eguzkitzeari eragiten baitio.

Aipatutako eraikinaren profila murriztea eskatzen dute.

Txosten teknikoa:

Azaldutako argudioak aintzat hartuz, alegazioa baiestea proposatzen dugu. Beraz, H lursailean kokatutako 10. eraikinaren profila aldatu beharko da. Hau da, gaur egun duen 3SS/ES+4+A profilaren ordez, honako hau izango du: 3 SS/ES+3+A.

Eraikin horren eraikigarritasuna murriztu denez, B eta C lursailletako 7. eta 8. eraikinen eraikitze profila ere aldatuko da. Hau da, gaur egun duten 2SS/ES+4+A profilaren ordez, honako hau proposatuko da: 2SS/ES+5+A.”

2 zenbakiko alegazioa

Lazkaoko udalak Beasain eta Lazkaoren arteko udal mugatzearekin ados ez dagoela adierazten du eta gaia berriro aztertzea eskatzen du.

Txosten teknikoa:

Udal mugak zehaztea ez da Zatiko Plan horren eginkizuna. Plan horrek Beasainen indarrean dauden Planeamenduko Arau Subsidiarioetan zehaztutako mugak jaso ditu. Arau horietan jasotako mugak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztutako udal muga berak dira.

Hori dela eta, alegazioa ezestea proposatzen dut.”

Egitasmo Partziala Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritzara bidali zen beharrezkoa den txostena eskatuz. Baita ere Eusko Jaurlaritzako Uraren Zuzendaritzara bidali zen. 2008ko uztailaren 22an jaso zen Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena. Uraren Zuzendaritzak ez du inolako txostenik eman, baina beharrezkoa ez denez, prozedurarekin jarraitu daiteke.

2008ko irailaren 5ean, Egitasmo Partziala aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea, txosten teknikoaren arabera lehendabizikoa onartuz eta bigarrena deuseztatauz.

Bigarren. Ugartemendi 3. Sektoreko Egitasmo Partzialari behin betiko onspena ematea, erabaki hau jasotzen den hurrengo egunetik zenbatuta eta hamabost eguneko epean, onartutako alegazioa aurreikusten duen Testu Bateratua bisatua aurkezteko baldintzarekin.

Hiruugarren. Aipatutako Egitasmo Partziala, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Partzialaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

4.- HIRI ANTOLAMENDUKO EGITASMO BEREZIAK

a.- Antzizar, 24 Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziaren behin betiko onspena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko abuztuaren 4ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena baldintzekin eman zitzaion, Antzizar, 24. Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeit hamar laneguneko epean, 2008ko abuztuaren 5 eta 7 Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Areako jabeei banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, ondorengoak sinatutako alegazioak aurkeztu ziren:

- ADIFen ordez, Luis Angel Barrero Balbas.
- Antonio Rodríguez Castro.

Alegazio honi buruz, udal arkitektoak 2008ko irailaren 4an txostena eman du ondorengoa adieraziz:

1 zenbakiko alegazioa

“ADIFen ordezkariek “dokumentu ofizialen eta ADIFen Ondasun eta Higiezinaren Inbentario Orokorren arabera, enpresa erakunde publiko hau 24. Eremuko (Antzizar) 172 eta 90 m²-ko bi lursailen titularra dela” adierazi du.

Eremu horren garapenerako kudeaketa dokumentua izapidetzean jakinarazteko eskatu du.

39/2003 Legearen arabera, jabetza eta babes lekuetan trenbiderako (8 eta 70 m) aurreikusitako obrak gauzatzeko ADIFen baimena behar dela ohartarazi du.

Txosten teknikoa:

Behin aurkeztutako alegazioak irakurrita, Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren araudiko edukari eragiten ez diola eta beraz gaitzetsi egin behar dela uste dugu.

Udalak idatzian zehaztutako ondasun eta zaintza egoerak ezagutzen ditu eta badaki nola kudeaketa, hala beharrezko jakinarazpenak 24.1 Exekuzio Unitateko Hitzarmen Batzordeak sustatuko dituela.”

2 zenbakiko alegazioa

Alegazioaren titularrak bere ardura agertu du “24. Eremurako aurreikusitako merkataritza guneen ustiapenaren parte bat gal daitekeelako”; izan ere, eraikinen eskakizunak Udalak zehaztutako irizpideetara egokitu behar dira.

Kontua argitzeko bilera tekniko bat eskatu du.

Txosten teknikoa:

Idatziaren edukia aztertuta, 24. eremuko (Antzizar) Hiri Antolamendurako Plan Bereziari eragiten dion baldintza edo egoerarik ez dagoela ikusi dugu; beraz, gaitzesteko proposatzen dugu.

Hirigintza batzordea egin eta gero, Teodoro Caho Etxeberria jaunak, Gaztañaga eta Telleria, S.L.ren ordez alegazio epea bukatzen zenean, hau da, 2008ko irailaren 1ean, Korreos-eko bulegoan alegazioa aurkeztutako alegazioaren berri izan da. Alegazioan ondorengo dio:

- Jendaurreko epea opor-garaian igaro da. Horrek jendea horretaz ez ohartzeko arriskua du.
- Beasaingo Udalari dokumentua ez ezaio informatikako euskarrian eraman eta horren ondorioz zailagoa da kontsultatzeko aukera izatea.
- Egitasmo Berezian jabegoaren estruktura aurreikusi beharra izateak ez du legearen babesik.

Honi buruz ondorengo txostena eman da:

“Egia da bai, Egitasmo Bereziaren hasierako onespenaren jendaurreko epea abuztuan izan dela, baina hori bidezkoa da legearen ikuspuntutik. Ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95. artikulua adierazten duen moduan egin da, hau da, hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu da. Horretaz gain, Planeamendu-Araudian aurreikusitakoaren arabera, Areako jabeai banakako

jakinarazpena egin zaie, defenda ezina izan ez dadin, nahiz eta legeak ez agindu hau betetzea.

Egitasmo Bereziaren dokumentua, 2008ko abuztuaren 5etik, Beasaingo Udalaren Web orrian argitaratuta dago, Legearen 9. artikulua esandakoa betez.

Jabegoaren estruktura koadroa sartzeko eskatzearen arrazoia, jabego publikoa eta pribatua bereiztea da, baina lehenengo alegazioarekiko erantzunean esanda bezala, Kontzertazio Batzordea izango da kudeaketa sustatuko duena eta Errepartzelazio Proiektua jabeen eskudibe eta kargak zehaztuko dituen, bere garaian zehaztuko den benetazko azaleraren arabera.”

Hiri Antolamenduko Egitasmo Berezia, Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritzara bidali zen beharrezkoa den txostena eskatuz eta baita ere Eusko Jaurlaritzako Uraren Zuzendaritzara.

Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiaren txostena 2008ko abuztuaren 29an jaso zen eta aldekoa da.

Uraren Zuzendaritzak berriz, ez du txostenik eman, baina beharrezkoa ez denez prozedurarekin jarraitu daiteke.

2008ko irailaren 5ean, Hiri Antolamenduko Egitasmo Berezia, aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea eta horren ondorioz ez onartzea, emandako txostenak kontutan izanda.

Bigarren. Antzizar, 24. Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onspena ematea adieraziz, txandakako aparkaleku plazak titularitate publikoa izango dute eta horren ondorioz, Udalari laga beharko zaio.

Hirugarren. Aipatutako Hiri Antolamenduko Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Fernando Boada jaunak, PSE-EE/PSOeko zinegotziak ondorengo adierazi du:

“Al aprobar las Normas Subsidiarias solicitamos que la ordenación no fuera vinculante y se aceptó. En ese momento éramos conscientes de la alta edificabilidad que se estaba contemplando para esa zona. Se han previsto 220 plazas públicas de garaje y en consecuencia parece que se tiene que dar más edificabilidad, pero también podría exigirse menos y la zona resultar menos agresiva. Se hicieron varios bocetos para esa zona y a nosotros el que más nos gustó fue el del bloque manzana. Como se ha hecho en Nafarroa Etorbidea, siendo una parte de viviendas de VPO y la otra de viviendas libres, pero parece que al promotor esto no le gustó. Lo que hoy se aprueba supone un impacto y que el edificio de más altura sea singular es difícil. Lo que vamos a ver es la “torre de Atocha” en Loinatz. No estamos de acuerdo.

En la calle mayor paralizamos una obra porque estaba ejecutando una altura más de la permitida, que es la de 4 plantas y un ático retranqueado. Ese error se solventó y le supuso al municipio más de 280.000 €. Aquí, sin embargo, son 15 alturas. Por la proximidad del río los garajes son totalmente inundables y el parque que se genera no va a ser para tanto.”

Alkate jaunak (EAJ): “Ese es un debate que se produjo en la comisión de urbanismo. Es normal que se discrepe, pero para nosotros es más interesante de esta manera porque las plazas de garaje son públicas y también existe un paseo de ribera. Es verdad que las 15 alturas puede ser un impacto, pero serán los técnicos quienes tengan que hacer un seguimiento de la construcción.”

Aitor Aldasro jaunak (EAJ): “al respecto de la inundabilidad decir que en Donostia hay infinidad de garajes a la altura del nivel del mar, pero entiendo que técnicamente ese tema está solventado.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, EA, EB, PP)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

b.- Errekarte I, 32 Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziaren behin betiko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 23ko Alkatzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion, baldintzekin Errekarte I, 32. Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeituneguneko epean, 2008ko ekainaren 27an eta 28an eta uztailaren 7an, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Areako jabeen banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Egitasmo Berezia Uraren Zuzendaritzara bidali zen hilabeteko epean txostena emateko eskatuz, baina txosten hau ez da eman.

2008ko irailaren 5ean, Egitasmo Berezia aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Errekarte I, 32. Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

c.- Dr. Fleming, 34 Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziaren behin betiko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko ekainaren 23ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onspena baldintzekin eman zitzaion, Dr. Fleming 34. Areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epean, 2008ko ekainaren 27an, 28an eta uztailaren 2an eta 7an, Berrian, Diario Vascon, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Areako jabeen banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, honako hauek sinatutako alegazioak aurkeztu dira:

- Andrés Lasa Sarasola.
- Ignacio Altuna Suquia, Agustín Oyarzabal Yurramendi y José Arratibel Aramburu.
- Jose Luis Negueruela Rivero.

Alegazio horiei buruz, udal arkitektoak 2008ko irailaren 4an txostena eman du ondorengo adieraziz:

1 zenbakiko alegazioa

“Alegazioa aurkeztu duenak 34. Eremuan (Fleming dk.) kokaturiko lursail baten jabe dela adierazi du. Planaren arabera, lursailak 1.346m² -ko azalera du. Dena

den, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren arabera, lursail horren azalera 1.539 m²–koa da.

Hori dela eta, bere iritziz, gainerako 200m² inguru horiek 34. Eremuan sartu beharko liriateke. Edo bestela, zati hori —“asfaltatuta” dagoenez udalerrarena dirudiena— 11. Eremuko (Lardi) lursail pribatutzat hartu beharko litzateke. Beraz, 34. Eremuko mugakide izango litzateke eta 11. Eremuan (Lardi) aprobetxamendurako eskubidea izango luke.

Txosten teknikoa:

34. Eremuko (Fleming dk.) 34.1 E.U. Egikaritza Unitatean sartutako lursailen egiazko azalerak zehaztasunez finkatu beharko dira (eskriturak, neurketa erreala,...), unitatea berriro zatitzean.

34. Eremuko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren mugak Beasainen indarrean dauden Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetan horretarako ezarritako irizpideen arabera zehaztu dira.

Horregatik, Planean agertzen ez den azalerarik (informazio gisa ematen dena) ezin da eremua aldatu ezta ontzat eman ere.

Muga zuzena bada, eta, horrela da, Birzatatze Proiektuak zehaztuko ditu gero, jabeei dagozkien eskubideak eta kargak, zehaztutako azalera errearen eta Planak esleitutako aprobetxamenduen arabera.

Dokumentu honi, ordea, ez dagokio bere eragin esparrutik kanpo dauden inguruabarrak onartzea.

Hartara, alegazioa osorik ezestea proposatzen da.”

2 zenbakiko alegazioa

Alegazioa aurkeztu dutenek, Fleming dk. kaleko 2. zenbakidun eraikinaren eta inguruko beste lursail batzuen jabe gisa, Hiri Antolamendurako Plan Berezian ageri den lursailen eta jabeen zerrenda oker dagoela adierazten dute eta hori zuzentzea eskatzen dute.

Txosten teknikoa:

Idatzia irakurrita, esan behar dugu Hiri Antolamendurako Plan Berezian zerrenda bat dagoela, eremu osoan, eta, batez ere, 34.1 EUan dauden sailen, jabeen eta azalaren datuekin. Izan ere, EU horretan proposatzen da hiri garapen berria eta baita irabazien eta kargen banaketa ere. Informatzeko xede bakarrarekin, Birzaitze Proiektuak erabateko zehaztasunez finkatuko ditu azalera, jabeak eta horiei dagozkien eskubideak eta betebeharrak.

Nolanahi ere, eta akats horiek 34.1-UEren mugetan eragina izan dezaketenez, uste dut alegazioa aintzat hartu behar dela eta Planean horri buruz dauden dokumentuak zuzendu behar direla (lursailen titularitatea egiaztatu beharko da).”

3 zenbakiko alegazioa

“Alegazioa egin duenak, zati bat 34. Eremitik (Fleming dk.) kanpo duen lursail baten gabea denak, eremu horretan sartutako bere lursailaren zatia kanpoan uzteko eskaera egin du, bere lursailaren barruan dagoelako eta 34. eremuan aurreikusitako antolamendutik kanpo geratzen delako.

Txosten teknikoak:

Alegazioa adierazitako inguruabarrak ikusita, eginiko proposamena ontzat jotzen dugu eta 12. lursaila B41 Egikaritza Unitatearen mugetatik kendu behar dela uste dugu. Horrez gain, lurzoru hori gaur egungo baldintzetan uztea proposatzen dugu.

Hartara, alegazioa adierazi bezala onartzea proposatzen da.”

2008ko irailaren 5ean, Egitasmo Partziala aurkeztu da, hasierako onespenean ezarritako baldintzak barne direla. Hau da, hain zuzen ere, 2008ko irailaren 8an udal arkitektoak emandako txostenean adierazten dena.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea, txosten teknikoaren arabera lehendabizikoa ez onartuz eta bigarrena eta hirugarrena onartuz.

Bigarren. Dr. Fleming, 34. Areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onspena ematea, erabaki hau jasotzen den hurrengo egunetik zenbatuta eta hamabost eguneko epean, onartutako alegazioa aurreikusten

duen Testu Bateratua bisatua aurkezteko baldintzarekin. Aldi berean Testu horrek ondorengo jasoko du:

- memorian zuzendu bada ere, 1.5 planoak 4. lursailaren mugaketa zuzena jasoko beharko du.
- Unitate Egikaritzeko ipar-mendebaldea ingurabide berdearekin lotura izango du, jabari publiko eremu baten bidez.

Hirugarren. Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

5.- XEHETASUN AZTERLANA. 42 Areako Xehetasun Azterlanaren behin betiko onespina.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo 42. Areako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

I.- 2008ko uztailaren 7ko datarekin, Alkateak ebatzi zuen 42 Areako Xehetasun Azterlanari hasierako onespina ematea, behin betiko onespenerako dokumentua bisatua aurkezteko baldintzarekin.

II.- Espedientea jendurrean jarri zen, 2008ko uztailaren 17ko GAOn, 2008ko uztailaren 8an Berrian eta 2008ko uztailaren 9an Diario Vascon, iragarkiak argitaratuz. Legeak adierazten duen hogeit hamar eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

III.- Hasierako onspen erabakia sustatzaileari jakinarazi zitzaion eta honek behar bezala dokumentua bisatua aurkeztu du.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. 42 Areako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

6.- PONDERAZIO KOEFIZIENTEAK. Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuko Testu Bateratuaren ponderazio koefizienteen aldaketari hasierako onespena ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Haztapan koefizienteak aldatzea.

Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Testu Bateratuak, etxebizitza (babes ofizialekoak eta libreak), eranskin (garajeak eta trastelekuak), merkataritza lokalak eta industrialdeen haztapan koefizienteak ezartzen ditu.

Hirigintza-ordenantzen 27. artikulua adierazten du dagokion prozedura administratiboaren bidez eguneratuko direla, babes ofizialeko etxeen gehieneko prezioen gaineko urteko zirkularrean oinarrituz eta bestetik, Euskal Herriko higiezin eskaintzari buruzko txostenean, Arau Subsidiarioen dokumentuan inolako aldaketarik egin behar izan gabe.

Horren ondorioz eta Udal arkitektoak emandako txostena kontuan izanda, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Haztapan koefizienteei hasierako onespena ematea. Honela finkatuta gelditzen dira:

Babes ofizialeko etxebizitza:	1
Etxebizitza librea:	7,6
Etxebizitza tasatua:	2,6
Babes ofizialeko eranskina:	0
Eranskin librea:	0,4

Tasatutako eranskina: 0
Merkatal lokala: 2,2

Bigarren. Erabakia hogei laneguneko epean jendaurrean jartzea. Epe horretan alegaziorik ez bada izaten, erabakia behin betikoa izango da. “

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

7.- CAF ENPRESAREKIN HITZARMENA. Konpromiso-erabakien hasierako onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“CAFekin sinatzea proposatzen den konpromiso-erabakien edukia aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. CAFekin sinatzea proposatzen den konpromiso-erabakien xehetasunei hasierako onespena ematea eta hogei eguneko epean jendaurrean jartzea, edukia osoa GAOn argitaratuz. Epe horretan alegaziorik ez bada izaten, hitzarmena behin betiko onartuta geldituko da.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da, dokumentuaren edukia ondorengo izanik:

“BERTARATUAK

ALDE BATETIK:

**PATXI PLAZAOLA MUGURUZA Jn, Beasaingo Udaletxeko Alkate-
Presidentea, ITZIAR AROSTEGIAnd, Erakundeko Idazkaritzarekin
batera.**

BESTETIK:

... .. Jn/And, adin nagusikoa eta(e) ko/go biztanlea, helbidea(e)an duena eta zenbakidun Nortasun Agiri Nazionalaren jabea.

PARTE HARTZEN DUTE

Alkate Jauna, bere Udalaren izen eta ordezkartzan,(e)ko egunez egindako saioan Udalbatzak hartutako adostasunaren arabera ekitaldi honetarako gaitua, agiri honi eransten zaion ziurtagirian egiaztatzen denez.

..... Jauna, **“C.A.F.....”** merkataritza-moduan. Erakunde hau, iraupen mugagabez eratu zen,(e)ko/go Notarioakegunez, bere protokolokozenbakiarekin baimendutako Eskrituraren baitan. Helbidea(e)ko/go.....kaleko, zenbakian izaki, Gipuzkoako Merkataritza-Erregistroan ageri da inskribaturik,Liburukian,Folioan,SS Orrian, eta bere IFKda, eta ekitaldi honetarako gaitua dago(e)ko/go Notarioakegunez, bere protokoloko.....zenbakiarekin baimendutako eskritura bidez emandako ahalordetzearen arabera. Ahalordetze hori Gipuzkoako Merkataritza-Erregistroan inskribaturik ageri da,Liburukian,Folioan,SS Orrian. Aipatu ahalordetzearen fotokopia bat eransten da.

Bi aldeek **HIRIGINTZA GAUZAPEN HITZARMEN** hau formalizatzeko adina gaitasun legal dute eta, hala aitortzen diote elkarri, horretarako hurrengoak adierazten direlarik

AURREKARIAK

I.- “C.A.F.” merkataritza enpresaren instalazioak, Lazkao, Beasain eta Ordiziako udalerrien barruan kokatzen dira.

II.- Beasaingo Udal Plangintzarako Arau Subsidiarioen berrikuspen-espedita behin-betiko onartu zen, 2007ko urriaren 16ean ospatu zen eta 2007ko azaroaren 6an argitaratu zen saioan, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Argurriaren Kontseiluak hartutako adostasunaren arabera.

“C.A.F.” merkataritza enpresaren instalazioak 6.Arean barneratzen dira.

III.- Adierazten den hurrenkeran, hitzarmen honetan plangintzarako agiriak, hirigintza jardute programak eta birpartzelatze eta hirigintza proiektuak eratzeko

konpromisoak ezartzen dira, halaber, hirigintza-lanak gauzatzeko jarduteko modua ezartzen dira.

IV.- Aurrekoak azalduta, bi aldeek HIRIGINTZA GAUZAPEN HITZARMEN hau formalizatzeari ekiten diote, horretarako hauek izango dira jarraitu beharreko

HITZARTZEAK

LEHENA.- GARAPEN ETA KOORDINAZIO PLANGINTZARAKO AGIRIAK TAXUTZEA JADANIK ADIERAZI DEN ARAUAREN MOLDAPEN PUNTUALAREKIN.-

“C.A.F.” merkataritza enpresa, Beasaingo Udalaren aurrean, 6.Areako Hiri-Antolamendurako Plan Berezia taxutzera derrigortua dago, bi hilabeteko epearen barruan agiri hau sinatzen denetik. C.A.F.-ek aipatutako plangintza xehakatuaren agiriak eratzeko aukeratzan duen idazlari-taldeak, Udaletxeko Udal Teknikarien Zerbitzuekin lankidetzan arituko dira.

Epe hori igarota, Beasaingo Udaletxean aipatutako Hiri-Antolamendurako Plan Berezia aurkeztu ezean, honek subsidiarioki agintzeari ekingo dio, modu honetan, 2009ko otsaila baino lehen Beasaingo Udal Korporazioak, aipatu agiria behin-betikoz berretsiko du.

CAF-ek hartzen dituen hiru udalerrietako Udaletxeko Zerbitzu Teknikoek, irizpideak koordinatuko dituzte edozein bateraezintasun ekidite aldera. Ezarritako epeetan eragina izan dezaketean, Udalez gaindiko irizpide horien koordinaziotik eratorritzen diren arloak, ezingo zaizkio inolaz ere CAF-i egotzi.

Aipatu Plan Berezi horretan, jarduteko sistema lankidetzazkoa izango dela jasota geratuko da.

BIGARRENA.- HIRIGINTZA JARDUTE PROGRAMEN ETA BIRPARTZELATZE PROIEKTUEN TAXUTZEA.-

Beasaingo Udalak, Hirigintza jardute programa (H.J.P) eta 6.Areako Birpartzelatze Programak aginduko ditu, hurrenez hurren, 2 hilabeteko epearen barruan eratuta egon beharko direlarik, Udalak H.A.P.Baren hasierako onarpena ematen duenetik hasita, modu horretan, agiri horiek 2009/05/31rako behin-betikoz onartuta egongo dira.

HIRUGARRENA.- HIRIGINTZA PROIEKTUA.-

Beasaingo Udalak, 6.Areako Hirigintza Proiektuaren eraketa aginduko du. Proiektu honetan, egungo bidea egokituko da, oinezkoen zirkulazioari, txirrinduen zirkulazioari eta autoen zirkulazioari bide emateko.

C.A.F.-ek hartzen dituen udalerrri bakoitzaren esku-hartzeen artean nolabaiteko koherentzia mantenduko da, Udalaren eskumeneko zonalde bakoitzaren zehaztapenak errespetatuz.

Beasaingo Udalak 2009/09/31 baino lehen onartuko ditu agiri hauek behinbetikoz.

LAUGARRENA.- HIRIGINTZA PROIEKTUEN LANAK GAUZATZEA.-

Beasaingo Udalak, 6.Areako Hirigintza Proiektuaren kontratazioarekin eta gauzatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak garatuko ditu, 2010/12/31 baino lehen Urbanizazioa gauzatzeko konpromisoa hartuz.

Aipatu agiriak idazteari dagozkion soldatak nahiz aipatu lanak egiteko kontratek egindako eskaintzak C.A.F-ekin batera adostuko dira.

Aurreko hitzartze hauek irakurri ostean, euren interesekin bat datozela adierazten dute, ondorioz, bertako edukia berretsiz, bi ale sinatzen dituzte aipatu ondorioak izan ditzan, goran adierazitako toki eta egunean.

8.- SASIETA MANKOMUNITATEAREN ALDE ONDASUNEN EMAKIDA ADMINISTRATIBOA

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Sasieta Mankomunitatearen alde emakida administratiboa egitea.

Beasaingo Udala, Tolosako Jabetza Erregistroan, 2.186 Tomoan, 246 Liburuan, 7. Orrialdean inskribatuta dagoen, 14.042 lursailaren jabea da. Lursail hori, 8. Sektoreko Errepartzelazio Proiektuan, G lursaila izenarekin esleitu zaio.

Aipatutako lursailak jabari publikoa osatzen du. 2.642 m²ko azalera du eta 2004ko urtarrilaren 13ko Diputatu Kontseiluak behin betiko onespena emandako 8. Sektoreko Egitasmo Bereziaren arabera, Sasieta Mankomunitateari zuzendua dago eta azpiegitura eta zerbitzuetarako sistema orokorra osatzen du.

Lursail horretan Sasieta Mankomunitatearenak diren kamioiak pisatzeko baskula eta zerbitzuetarako eraikina egoteaz gain, bertan kontsumo baxuko pabiloia eraikitzea aurreikusita dago, Mankomunitateko bulegoak jartzeko eta ibilgailuak gordetzeko.

Kontutan izanda:

1.- Jabari publikoa den ondasuna dela eta horren ondorioz, salduzina, enbargazina eta preskribazina.

2.- Erabiltzeko edo okupatzeko beharrezkoa da eskuduntza duen autoritateak emandako titulua.

3.- Zuzenean ematea erabaki daiteke, hartzailea zuzenbide publikoko pertsona juridikoa denan.

Hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo-erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Tolosako Jabetza Erregistroan, 2.186 Tomoan, 246 Liburuan, 7. Orrialdean inskribatuta dagoen, 14.042 lursailaren gainean jabari publikoarekiko emakida administratiboa ematea, Sasieta Mankomunitatearen alde.

Bigarren. Emakida administratiboa honako baldintzapean ematen da:

1.- Aipatutako lursaila, azpiegitura-ekipamendu eta zerbitzuetarako izango da, 8. Sektorako Errepartzelazio Proiektuan aurreikusten den bezala. Beraz, dagoeneko funtzionamenduan aurkitzen eta Sasieta Mankomunitatearenak diren kamioiak pisatzeko eta zerbitzuetarako eraikinaz gain, bertan bulegorako eta entitatearen ibilgailuak gordetzeko kontsumo baxuko pabiloia egongo da.

2.- Emakida administratiboaren truke ez dago ez ordainsaririk ezta tasarik ere, baina Sasieta Mankomunitatearen betebeharra izango da,

aipatutako pabiloia egin eta ordaintzeaz gain, lursaileko instalazio guztiak kontserbatu eta mantentzea.

3.- Sasieta Mankomunitateak ere, pabiloia egiteko eta bertan garatu behar den jarduerarako behar diren lizentzia eta baimen lortu beharko ditu.

4.- Sasieta Mankomunitateak eraikiko duen pabiloia aseguratuko du eta aipatutako azpiegiturak erabiltzeagatik sortu daitezkeen arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguruua ere kontratatuko du. Bi poliza horien kopia Beasaingo Udaletxean aurkeztuko da.

5.- Aurrerago aipatuko diren emakida bertan behera gelditzeko baldintzaz gain, emakida administratiboa baliorik gabe gelditu daiteke Udalak bere kasa erabakitzen bada edozein momentutan interes publikoagatik. Kalte-ordainik ez da egongo geroztik onartutako baldintza orokorrekin bat ez ba dator, jabari publikoan kalteak sortzen badira edo interes publiko handiagoa duten jarduerentzat erabiltzea eragozten bada edo erabilpen orokorra gutxiagotzen bada.

6.- Emakidaren epea 75 urtekoa izango da, dokumentu administratiboan formalizatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

7.- Sasieta Mankomunitatearen kontura izango da emakida eta pabiloiarekiko obra-berriaren aitorpena Jabetza Erregistroan inskribatzea.

8.- Emakida administratiboa baliorik gabe ondoren aipatzen direnagatik geldituko da:

- a) Sasieta Mankomunitatea desagitea.
- b) Emakida ematen duenak aldeztu aurretik baimena ez ematea eskualdatze-kasuetan.
- c) Iraungitzea, epea bete delako.
- d) Administrazioak bere kasa emakida bertan behera uztea.
- e) Bien arteko erabakia.
- f) Emakida duenak betebeharrak ez burutzea eta Administrazioak horrela aitortzea.

9.- Emakida bukatzen denean, obra eta instalazio guztiak, Administrazioarentzat geldituko dira.

Hirugarren. Erabaki hau 30eko laneguneko epean jendaurrean jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez badira aurkezten, erabakia behin betikoa izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

9.- IZENDEGIA. Itola 6. Sektoreko industrialdeari izena ematea eta pabiloiak zenbatzea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du:

“Itola, 6. Sektoreari honela izendatzea:

**ITTOLAKO INDUSTRIALDEA
SALBATORE AUZOA 15 A
20218 BEASAIN**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

10.- DIRULAGUNTZAK EMATEA:

a.- 2008ko uztailaren 1ean izandako euriteen ondorioz sortutako kaltetuentzat dirulaguntzak.

Arantxa Gibelalde andreak, hazienda batzordeko lehendakariak, proposamenaren berri eman du:

“Ekainaren 1ean izandako euriteen ondorioz Oria ibaiak gainezka egin zuen Ezkiaga Etorbidean eta herriko hainbat eremutan uholdeak izan ziren.

Bere ondasunetan kalteak jasandako herritarrei haien konponketa eta berjarpenerako jasandako kostuak konpentsazioan laguntzeko, Hazienda Batzordeak Udaltzari ondorengo akordioaren onespena PROPOSATZEN dio:

Lehenik.- Ondorengo laguntzak onartzea ekainaren 1ean izandako euriteen ondorioz kaltetuak gertatutakoen alde eta bakarrik Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak onartutako ondasunei buruzko erreklamazioei dagokienak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga:

Kaltetuak gertatutako ondasun higiezinaren titularrek (kaltetutako finka zatiarengatik), aurtengo ekainetik abendura arteko epearen arabera kalkulaturako zerga zatia adinako dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga:

Kaltetuak gertatutako ibilgailuen titularrek, aurtengo ekainetik abendura arteko epearen arabera kalkulaturako zerga zatia adinako dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Ura, argindarra eta kaltetutako ondasunei buruzko udal tasetan jasandako gastuak konpentsatzeko laguntzak:

Kaltetuak gertatutako ondasun higiezinaren titularrek 120,00 eurotako dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute (katastro-unitate bakoitzeko), ondasunen garbiketa eta egokitzapenak ur eta argindarrean eragindako ezohiko gastuarengatik eta kaltetutako ondasunei buruzko udal tasen laguntza gisa.

Ibilgailuaren matrikulazio zerga

Erabateko ezbehar egoeran deklaraturako ibilgailuen titularrek, kaltetutako ibilgailua ordezkatzeko 2.008ko abenduaren 31a baino lehen erositako ibilgailu berriaren matrikulazio zergarengatik ordaindutakoaren adinako dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Laguntza eskariak behar bezala osatuta Udaltzari informazio bulegoan aurkeztu ahal izango dira 2008ko abenduaren 31ko epemugarekin, ondorengo dokumentazioarekin batera:

- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren aurrean aurkeztutako kalteen parte onartua izan dela.

- Ibilgailua erabateko ezbehar egoeran deklaratu izan dela egiaztatzen duen dokumentua (dagokion kasuan).
- Ordaindutako matrikula zergaren agiria(dagokion kasuan).

Bigarren.- Akordio hau jendaurrean jartzea G.A.O.n., web orrian eta udaleko iragarki-taulan iragarkia argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek eman dituzte:

EAEko ordezkariak galdetu du jakin den zein izan den arrazoia erreka gainezka egiteko. Eskatu du kalte-ordainak benetakoak izatea.

Alkatea jaunak (EAJ): A raíz de lo sucedido el Ayuntamiento solicitó un estudio hdráulico y la conclusión a la que se ha llegado es que ha sido el caudal del agua, lo que ha hecho que esa zona se inunde. Existe riesgo de avenidas cada diez años. Ese estudio prevé diversas actuaciones y el Ayuntamiento lo que va a hacer es adoptar medidas preventivas junto con la dirección de emergencias de Diputación. Se va a establecer un sistema de alarma conectado directamente con el Ayuntamiento, de manera que si ocurre nuevamente los daños sean mínimos. También se va a incrementar la capacidad de los sumideros, y se van a acometer mejoras en el lecho del río, bajando el nivel unos 70 cm., pero esto es competencia de la Dirección de Aguas.

Hay que adoptar medidas preventivas para que no suceda lo que ocurrió en e laño 1983.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el publico asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak(EAJ): “Soy consciente de ello.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

b.- 2, 4, 6 eta 8 Bista Alaiko bizilagunen alde higiezin ondasun gaineko zergaren zatia ordaintzeko dirulaguntzak.

Arantxa Gibelalde andreak, hazienda batzordeko lehendakariak, proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2001eko abenduan Bista Alai kaleko 2 eta 4 zenbakietako etxebizitzak utzarazteko agindua eman zen eraikinak erortzeko zegoen arriskuaren aurrean. Hori dela eta, afektatuei Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kopuruarengatiko dirulaguntza ematea erabaki zuen Udalak.

2.- Dirulaguntza izendun gisa aurreikusi da ekitaldi bakoitzean eta urtez-urte 2.007 urtera arte eman izan da.

3.- 2.008ko urtarrilaren 1a baino lehen eraitsi ziren 2 eta 4 zenbakiak, baina ez ordea 6 eta 8 zenbakiak, beraz urte horri dagokion Ondasun Higiezin gaineko Zerga sortu da, dagokion moduan, lehenengoei dagokienez orubearen balorearen arabera eta bigarreni aldiz orubearen eta eraikuntzaren balioaren arabera.

Bista Alai, 2 eta 4 zenbakietako etxebizitzan jabeak, arrazoi sozial eta humanitarioak oinarri hartuz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainketa diruz laguntzeko lehendik ere aplikatutako irizpideari jarraituz eta kontutan izanik nahiz eta 6 eta 8 zenbakietako bizilagunak Udalak behartu zituela etxeak uztera, eraikina botatzeko izandako atzerapenaren ondorioz zerga sortua dela eraikinaren balioaren arabera ere, Hazienda Batzordeak Udaltzari ondorengo akordioaren onespena PROPOSATZEN dio:

Lehenik.- 2008ko ondasun higiezinaren gaineko zergaren kopuruarengatik dirulaguntza ematea 2 eta 4 zenbakietako jabeak, orubearen azalera guztiarengatik sortutako ordainagiri bakarria konpentsatuz.

Bigarren.- 2 eta 8 zenbakietako bizilagunei 2008ko ondasun higiezinaren gaineko zergaren eraikuntza balioari zerga-tipoa aplikatuz ondorioztatutako kopuruaren adinako dirulaguntza onartzea.

Hirugarren.- Aipatutako eraikinetako kaltetuei ebazpen honen berri ematea.

Laugarren.- Onartutako dirulaguntzen ordainketa agintzea Kontuhartzaitza Sailari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da.

11.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2008ko ekainaren 30etik irailaren 8ra Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2008ko ekainaren 30etik irailaren 8ra Alkateak emandako ebazpenak.

12.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoa aurkeztu da:

BIZTANLEEN ERROLDA

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) galdetu du ea nor den erroldaren arduraduna eta nola kontrolatzen den, zeren eta gertatu da familia

bereko bi kideen etxebizitzetan pertsona gehiago erroldatuta zeudela, beraiek ezer jakin gabe.

Erantzun zaio esanez, errolda idazkaritzaren menpe dagoela, baina pertsona batek propio errolda kudeatzen duela. Normalean ez da horrelakorik gertatzen eta akats puntualak izaten dira. Horiek zuzentzeko onena da udaletxera etorri eta aztertzea edota erreklamazio bat aurkeztea.